

LA PAMPLONESA EN EL GAYARRE 2022 RELATOS CERCANOS

DL NA 2475-2022



www.bandapamplonesa.com | www.pamplonaescultura.es

EL RUMOR DE LA AURORA

DOMINGO 6 DE NOVIEMBRE
12:00

■ LUIS M^a SAN MARTÍN URABAYEN

« La Aurora había dejado su lecho de azafrán y los tempranos rayos de luz cubrían los cielos, cuando, desde una torre, la reina, con ojos despiertos, vio el día apuntando hacia arriba desde los cielos rosados ».

[VIRGILIO, *La Eneida*, Libro IV]

Aurora es la diosa romana del amanecer, equivalente a la griega Eos. Una figura asociada a la belleza y la luz que se levanta cada mañana y cruza el cielo, anunciando la llegada de su hermano Sol. Su influencia pervive en el destello de luz conocido como aurora boreal y austral. Además, es un bonito nombre de mujer, como lo es también Rosa, el color de la luz que desprende.

Sinónimo de Aurora es Alba, a quién el valenciano Ferrer Ferrán (1966-) dedica su *Alba Overture*. O más bien a Argamasilla de Alba, localidad de la provincia de Ciudad Real situada en el "lugar de la Mancha" donde Cervantes ubicó a su hidalgo Don Quijote. Dedicada a su banda, es una obra fresca y joven con un inicio majestoso seguido de aires ligeros y cordiales de influencia morisca y flamenca con palmas inclusive. La sugerente parte central representa la amistad y discurre hacia un final galante, propio del aprecio entre el autor y la formación que la estrenó en agosto de 2012 con la dirección del compositor. La Aurora es el amanecer en *Sunrise at Angel's Gate* del londinense Philippe Sparke (1951-). Compuesta para la Banda de Infantería del Ejército de los EEUU, ella la estrenó en 2001. Su autor nos dice: "En 1999 fui invitado a Flagstaff, Arizona. Allí visité el Gran Cañón al amanecer y Angel's Gate es una de sus formaciones rocosas. He representado las vistas, los sonidos y la llegada de los autobuses turísticos. Al final de la obra, al son de una campana, se recuerdan los peligros que la belleza del Gran Cañón tan hábilmente esconde".

El estadounidense Frank Ticheli (1958-) es profesor de composición en la Universidad de Southern Caroline. *Blue Shades* (1997) toma elementos del jazz y por momentos la banda es tratada como una Big Band. Su sec-



ción central desprende blues en una atmósfera de humo y oscuridad clandestina. Al final, el clarinete recuerda al Benny Goodman más "hot". La obra es un encargo de un consorcio de treinta bandas de música, que la estrenaron simultáneamente. Rosa, la luz que desprende la Aurora, es el nombre que generó *A Movement for Rosa*, del estadounidense Mark Camphouse (1954-). Compuesta en 1992, es un encargo de la Florida Bandmasters Association en honor a Rosa Parks, quien el 1 de diciembre de 1955 fue arrestada por negarse a ceder su asiento a un hombre blanco en Montgomery, Alabama. Por su acto de valentía personal se ganó el título de "Madre del movimiento por los derechos civiles" y Martin Luther King se dirigió a ella como "quien cuyo testimonio creativo fue la gran fuerza que condujo al avance moderno hacia la libertad". Las tres secciones de la obra cuentan su historia desde su nacimiento en febrero de 1913 en Tuskegee, Alabama, hasta su última y tranquila serenidad, con un recordatorio final a la persistente presencia del racismo en la sociedad estadounidense moderna. Por último, *Aurora*, del austríaco Thomas Doss (Linz, 1966-), representa la transición entre los poderes oscuros de la noche y la luz del nuevo día. Posee una atmósfera espiritual a modo de pintura en la que los colores sonoros evocan imágenes de culturas y tradiciones antiguas. Pueden encontrarse monjes orientales saludando al amanecer con gongs y campanas, sentir el rítmico pataleo de los nativos de América o el saludo salvaje de la selva africana. Compuesta en 1997, hay diferentes estados de ánimo, con predominio de Oriente como lugar de nacimiento del amanecer.

PROGRAMA

PARTE I

Alba Overture
FERRER FERRAN

Sunrise at Angel's Gate
PHILIP SPARKE

Blue Shades
FRANK TICHELI

PARTE II

A Movement for Rosa
MARK CAMPHOUSE

Aurora
THOMAS DOSS

DIRECCIÓN

Iker Sánchez Silva

PRÓXIMO CONCIERTO

La del manajo de rosas
Lunes 28 de noviembre
Teatro Gayarre. 20:00
Martes 29 de noviembre
Teatro Gayarre. 19:00

COLABORA:
Aula de Canto del Conservatorio
Superior de Música de Navarra

DIRECTOR:
J. Vicent Egea



LA PAMPLONESA GAYARREN. 2022 RELATOS CERCANOS

LG NA 2475-2022



www.bandapamplonesa.com | www.pamplonaescultura.es

EL RUMOR DE LA AURORA

AZAROAK 6, IGANDEA
12:00

■ LUIS M^a SAN MARTÍN URABAYEN

« Aurorak bere azafratzeko ohea utzi eta goizeko argi izpiek zerua estaltzen zutenean, dorre batetik, erreginak, begiak erne, eguna zeru arrosetatik gorantz ikusi zuen »
[VIRGILIO, Eneida, IV. Liburua]

Aurora egunsentiaren jainkosa erromatarra da, Eos greziarraren baliokidea. Edertasunari eta argiari lotutako irudia, goizero esnatu eta zerua zeharkatzen duena, bere anaia Eguzkiaren etorrera iragartzeko. Haren eraginak bizirik dirau aurora boreal eta austral izenez ezaguna den argi-distiran. Gainera, emakumezko izen polita da, Rosa, igortzen duen argiaren kolorea ere, baden bezala.

Auroraren sinonimo da Alba; hari eskaini zion Ferrer Ferrán (1966-) valentziarrak *Alba Overture* lana. Edo, hobe esanda, Argamasilla de Albari, Cervantesek On Kixote kaparea kokatu zuen "Mantxako lekuan" dagoen Ciudad Realeko herriari. Bere bandaren omenez egindako lan hau freskoa eta gaztea da, hasiera bikaina du eta jarraian, eragin moriskoa eta flamenkoa duten doinu arin eta pizgarriak, esku-zartak barne. Erdi aldeko atal iradokitzaileak adiskidetasuna irudikatzen du eta amaiera atsegin baterantz doa, egilearen eta 2012an konpositorearen zuzendaritzapean obra estreinatutako taldearen arteko estimuaren erakusgarri. Aurora egunsentia da Londresko Philippe Sparkeren (1951-) *Sunrise at Angel's Gate* lanean. AEBko Armadaren Infanteriako Bandarendako konposatua, 2001ean estreinatutako zuten. Egileak honako hau adierazi du: "1999an Flastaffera (Arizona) gonbidatu ninduten Bertan, Arroila Handia bisitatu nuen egunsentian, eta Angel's Gate bertako arroka-formazioetako bat da. Bistak, soinuak eta autobus turistikoaren helduerak irudikatu ditut. Obraren amaierak, kanpai baten doinuaz, Arroila Handiaren edertasunak abileziak ezkutatzeko dituen arriskuak dakartzate gogora".

Frank Ticheli (1958-) estatubatuarra konposizio irakaslea da Southern Carolineko Unibertsitatean. *Blue Shades* (1997) lanak jazzaren elementuak hartzen ditu eta zenbait unetan bandak Big Band bat ematen du. Erdiko



atalari bluesa dario, ke eta iluntasun klandestinoko giroan. Amaieran, klarineteak Benny Goodman beroena dakar gogora. Lana hogeita hamar musika banden partzuego baten enkarguz egin zen eta aldi berean estreinatutako zuten. Arrosa (Rosa) da Aurorak igortzen duen argia, eta izen horretatik sortu zen Mark Camphouse (1954-) estatubatuarren A Movement for Rosa lana. 1992an konposatu zuten Florida Bandmasters Association elkartearen enkarguz eta Rosa Parksen omenez, zeina 1955eko abenduaren 1ean atxilotu baitzuten Montgomeryn (Alabama) bere eserlekua gizon zuri bati uzteari uko egiteagatik. Izan zuen ausardiagatik "eskubide zibilen mugimenduen ama" izendatu zuten eta Martin Luther Kingek hari buruz esan zuen: "haren sormen-testigantza izan zen askatasunerantzko aurrerapen modernoak ekarri zuen indar handia". Obraren hiru atalek haren historia kontatzen dute, 1913ko otsailean Tuskegeen (Alabama) jaio zenetik, amaierako sosegu lasaira bitarte. Obrak amaieran gogorarazten digu arrazismoak presente jarraitzen duela AEBko gizarte modernoan. Azkenik, Thomas Doss (Linz, 1966-) austriarraren *Aurora* lanak, gauaren botere ilunen eta egun berriaren argiaren arteko trantsizioa irudikatzen du. Pintura gisako giro espiritualak dauka, non soinu-koloreek antzinako kultura eta tradizioen irudiak gogora ekartzen baitituzte. Bertan aurki daitezke, besteak beste, ekialdeko monjeak egunsentiarri agurtzen gong eta kanpaiekin, Amerikako natiboaren aztalka erritmikoak eta Afrikako oihanaren agur basatia. 1997an konposatua, aldarre ezberdinak islatzen ditu, Ekialdea nagusi delarik, egunsentiaren jaioterri gisara.

PROGRAMA

I. ZATIA

Alba Overture
FERRER FERRAN

Sunrise at Angel's Gate
PHILIP SPARKE

Blue Shades
FRANK TICHELI

II. ZATIA

A Movement for Rosa
MARK CAMPHOUSE

Aurora
THOMAS DOSS

ZUZENDARITZA

Iker Sánchez Silva

HURRENGO KONTZERTUA

La del manojo de rosas
Azaroak 28, astelehena
Gayarre antzokia. 20:00
Azaroak 29, asteartea
Gayarre antzokia. 19:00

LAGUNTZAILEA:
Nafarroako Goi Mailako Musika
Kontserbatorioko Kantu Ikasgela

ZUZENDARIA:
J. Vicent Egea

